



2012ko iraila

Adiskide hori:

Lehenengo idazki hau bidaltzen dizut, jakinda asko daukadala ikasteko eta horretarako zure laguntza ezinbestekoa izango zaidala.

Udan, merezitako atsedena izan ondoren, indarrak eta lasaitasuna berreskuratzeko aukera izan dugu. Orain, adoretz eta itxaropenez beterik ekingo diogu lanari.

Egungo egoera sozio-ekonomikoak arreta guztia eskatzen digu, sinestunen komunitate garen heinean. Gure inguruko pertsonen artean sortzen ari diren premiazko hainbat egoera berri hartu behar ditugu kontuan, eta koherentziaz jardun eta salatu. Caritasen berezko ezaugarria den sentsibiltate hori Eliza partikularrean eta komunitate guztietan txertatu behar da, beren bizitza eta egitekoaren funtsezko elementu gisa. Komunitate batek ez du bere egitekoa beteko ebanjelioa iragartzen ez badu, fedea ospatzen ez badu eta anai-arreba behartsuenen alde lan egiten ez badu.

Oraingo honetan gure kanpainak askatasunik gabeko pertsonengan jarriko du arreta. Gure Elizbarrutiko Elizak, Caritasen, Kartzela Pastoralaren eta Bidesariren bidez, errealitate zail eta korapilatsu honi erantzun egokiak emateko ibilbideak eta proiektuak proposatzen ditu, egoera pertsonal bakoitza bere onera ekartzeko baldintza berriak sortuz.

Gure hausnarketa eta ekintza solidarioarekin batera, Jesusen hitzak eta ekintzak entzun behar dira: *“Nire anaia txiki horietako bati egin diozuen guztia, neuri egin didazue”* (Mt 25,40).

Ikuspegi horretatik, irmo aldarrikatu behar dugu posible dela beste justizia bat, “Fedea izan behar dugula beste justizia batean”. Justizia horretan, Jainkoaren errukiak pazientziaz lagunduko dio pertsona bakoitzari, bere erritmoa eta salbaziorako bidea errespetatuz, eta, betiere, bigarren aukera bat emanez. Horregatik, arlo honetan Eliza bezala dugun presentzia funtsezkoa da.

Gutun labur hau baliatu nahi dut, nire egiteko berria hartzen dudana unetik, Bizkaiko komunitate sinestunaren zerbitzura jartzeko.

Besarkada beroa,

Carlos Bargos
Zuzendaria

Septiembre de 2012

Adiskide hori:

Este primer escrito que te envió lo hago desde la certeza de que tengo mucho que aprender y el convencimiento de que tu ayuda va a ser imprescindible para ello.

Tras el merecido descanso del verano, que nos ha permitido recuperar fortaleza y serenidad, volvemos a comenzar este curso con ánimo y esperanzas renovadas.

La actual situación socio-económica nos exige el máximo de atención como comunidad creyente. Debemos estar pendientes de las muchas y nuevas situaciones de necesidad que se están produciendo entre las personas de nuestro entorno para poder, en coherencia, actuar y denunciar. Esta sensibilidad, propia de Cáritas, debe integrarse en la Iglesia particular y en cada una de las comunidades como elemento fundamental de su vida y su misión. Ninguna comunidad realiza íntegramente su misión si no anuncia el evangelio, si no celebra la fe y si no sirve a los hermanos y hermanas más necesitados.

En esta ocasión nuestra campaña se centra en las personas privadas de libertad. Nuestra Iglesia Diocesana, por medio de Cáritas, Pastoral Penitenciaria y Bidesari, propone y reclama itinerarios y proyectos que den respuestas adecuadas a esta delicada y compleja realidad, creando nuevas condiciones de recuperación para cada situación personal.

Junto a nuestra reflexión y acción solidaria, deben resonar las palabras y hechos de Jesús: ***“Todo lo que hicisteis con alguno de estos mis hermanos pequeños, a Mí me lo hicisteis”*** (Mt 25,40).

Desde esta perspectiva, debemos proclamar convencidos, que otra justicia es posible, que se puede tener “Fe en otra justicia”, en la que la misericordia de Dios acompañe pacientemente a cada persona respetando su propio ritmo y camino de salvación, dando siempre una segunda oportunidad. Por esta razón, nuestra presencia como Iglesia en este ámbito es, sin duda, esencial.

Aprovecho esta breve carta para ponerme al servicio y disposición de la comunidad creyente de Bizkaia desde mi nueva encomienda.

Besarkada beroa,

Carlos Bargos
Director